**Espediente zk./**Nº Expediente: 2020SDBD0025
**Gaia/**Asunto**:** COVID-19AK HAIEN JARDUERAN ERAGINA IZAN DUEN ETXEKO LANGILEENTZAT LAGUNTZA OSAGARRIA
**Eskatzailea/**Solicitante**:** SDBD
**Kokalekua/**Emplazamiento**:** ERRENTERIA

# DIRULAGUNTZAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

## COVID-19AK HAIEN JARDUERAN ERAGINA IZAN DUEN ETXEKO LANGILEENTZAKO LAGUNTZA OSAGARRIA

# BASES ESPECÍFICAS DE SUBVENCIONES

## AYUDAS A PERSONAS EMPLEADAS DE HOGAR CUYA ACTIVIDAD SE HAYA VISTO AFECTADA POR EL COVID-2019

**1.- Dirulaguntzaren xedea**

Oinarri hauen helburua da arautzea Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Bereziko kideen kolektiboari osasun-alarmak eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko dirulaguntzak.

**1.- Objeto de la subvención**

Estas bases tienen por objeto establecer las Bases Reguladoras de aplicación a la concesión de subvenciones para paliar los efectos económicos provocados por la alarma sanitaria entre el colectivo de personas integradas en el Sistema Especial de Empleados de Hogar del Régimen General de la Seguridad Social.

**2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua**

Deialdi honetan dirulaguntzetara guztira bideratuko dira 15.000 €, 2020ko aurrekontukoaren partida honen kontura:

**2.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.**

El importe total destinado a la presente subvención es de 15.000€ con cargo a la partida presupuestaria del 2020 siguiente:

1 1330.480.03.231.50 2020

Nolanahi ere, eskaeren kopurua eta zenbatekoa bideratutako kopurua baino handiagoa bada, Errenteriako Udalak zenbateko hori handitu ahal izango du, bere finantza-erabilgarritasunaren arabera.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du langilearen soldata gainditu, ez bakarrean, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

No obstante, si el número y cuantía de solicitudes superase la cantidad destinada, el Ayuntamiento de Errenteria podrá ampliar el citado importe, en función de su disponibilidad financiera.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el salario de la persona trabajadora.

**3.- Onuradunak**

Laguntza hau jaso ahal izango dute etxeko langile gisa aritzen diren eta COVID-19ak eragindako osasun-alarmaren ondorioz beren jarduera guztiz edo partzialki gutxitu behar izan duten pertsonek.

**3.- Personas beneficiarias**

Podrán resultar beneficiarias de la ayuda recogida en esta convocatoria aquellas personas que presten sus servicios como empleadas del hogar y que hayan visto reducida total o parcialmente su actividad a

consecuencia de la alarma sanitaria provocada por el COVID-19.

**4.- Onuradunek bete beharreko baldintzak.**

Deialdi honetan arautzen diren laguntza zuzenak eskatu nahi dituztenek, baldintza hauek bete behar dituzte:

- Errenterian erroldatuta egotea edo Errenterian lan egitea.
- Gizarte Segurantzaren Etxeko Langileen Sistema Berezian altan egotea 2020ko martxoaren 14aren aurretik.
- COVID-19ari aurre egiteko arlo sozial eta ekonomikoan neurri urgente osagarriak hartzeko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuaren 30. artikuluan jasotako jarduerarik ez izateagatiko sorospen berezia jasotzea.

**4.- Requisitos de los beneficiarios.**

Las personas que deseen solicitar las ayudas directas que se regulan en esta convocatoria deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Estar empadronada en Errenteria o que su lugar de trabajo sea Errenteria.
- Estar dado de alta en el Sistema Especial de Empleados de Hogar de la Seguridad social antes del 14 de marzo de 2020.
- Percibir el subsidio extraordinario por falta de actividad recogido en el artículo 30 del Real Decreto-ley 11/2020, de 31 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes complementarias en el ámbito social y económico para hacer frente al COVID-19.

**5.- Dirulaguntzaren zenbatekoa**

200 euroko zenbateko finkoa zehazten da ezohiko subsidioa osatzeko.

**5.- Cuantías de la subvención.**

Se establece una cuantía fija de 200€ como complemento al subsidio extraordinario.

**6.- Eskatzeko prozedura eta dokumentazioa**

Eskabideak aurkeztu ahal izango dira telematikoki Errenteriako Udalaren erregistro elektronikoaren bidez, edo paperean, ZU! zerbitzuaren bidez.

Eskabide-eredua deialdi honen I. eranskinean dago jasota.

Eskabidearekin batera aurkeztu behar da Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak jarduera-ezagatiko subsidio berezia onartzeko emandako ebazpenaren jakinarazpenaren kopia.

Eskatzaileak oraindik ez badu jakinarazpen hori jaso, gutxienez aurkeztu beharko du SEPEn eskaera erregistratu duela adierazten duen dokumentuaren kopia.

**6.- Procedimiento de solicitud y documentación**

Las solicitudes se podrán presentar por vía telemática a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Errenteria o en papel a través del servicio ZU!.

El modelo de solicitud se recoge en el Anexo I de esta convocatoria.

Junto con la solicitud deberá presentarse copia de la notificación del Servicio Público de Empleo Estatal de la resolución de concesión del subsidio extraordinario por falta de actividad.

En caso de que la persona solicitante no haya recibido todavía dicha notificación, deberá presentar al menos copia de la solicitud realizada ante el SEPE debidamente registrada.

**7.- Eskabideak aurkezteko epea.**

Eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta amaituko da alarma egoera amaitu eta bi hilabetetara.

**7.- Plazo de presentación de solicitudes.**

El plazo de presentación de solicitudes estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y hasta transcurridos 2 meses desde la finalización del estado de alarma.

**8.- Laguntzak ematea eta ordaintzea.**

Laguntzak emango dira eskaerak aurkezten diren hurrenkeraren arabera.

Dirulaguntza ordainketa bakarrean kitatuko da, ebazpena eman ondoren eta bertan zehaztutako epeen barruan.

**9.- Egiaztagiriak**

Eskabidearekin batera SEPEn egindako eskaeraren kopia soilik aurkeztu duten eskatzaileek, ondoren aurkeztu beharko dute erakunde horrek subsidioa emateko edo ukatzeko bidalitako jakinarazpenaren kopia.

SEPEren ebazpena eskaera ukatzekoa bada, onuradunak Udalaren laguntzari uko egin beharko dio eta, egoki bada, itzuli.

Justifikazio-dokumentazioa horretarako ezarritako epean aurkezten ez bada, bidegabe jasotako zenbatekoa itzultzeko espedientea irekiko da.

**10.- Oinarri orokorrak**

Oinarri espezifiko hauetan zehaztu gabekoari buruz, legokiokeenean, ERRENTERIAKO UDALAK 2020. URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORRETARA jo beharko da.

**8.- Concesión de ayudas y abono.**

Las ayudas se concederán por orden de presentación de las solicitudes.

El abono de la subvención se realizará en un único pago, tras la resolución de concesión y en el plazo en el que se establezca en la misma.

**9.- Documentación justificativa.**

Las personas beneficiarias que hayan presentado inicialmente únicamente la copia de la solicitud realizada al SEPE, estarán obligadas a presentar con posterioridad copia de la notificación de dicho organismo en relación a la concesión o no de dicho subsidio.

Si la resolución del SEPE fuera denegatoria, además, la persona beneficiaria deberá renunciar a la ayuda del Ayuntamiendo y reintegrarla, en su caso.

La no entrega de la documentación justificativa en el plazo habilitado al efecto dará lugar a la incoación del correspondiente expediente de reintegro de la cantidad indebidamente percibida.

**10.- Bases generales**

En lo no especificado en esta bases específicas, le serán de aplicación en lo que procediera las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2020.